

KONPAINIA:
dejabu panpin laborategia

ANTZEZLEAK:
Miren alkala, Urko Redondo,
Iñigo Aranbarri, Ainara
Gurrutxaga

TESTUAK:
Antzezleak eta Oier Guillan

MUSIKA:
Ander Fernandez

BANAKETA:
Artedrama plataforma

arrastoak



Talde artistikoa

Zuzendaritza eta gidioia:
Dejabu panpin laborategia

Antzezleak:
Miren Alkala
Urko Redondo
Iñigo Aranbarri
Ainara Gurrutxaga

Musika konposaketa:
Ander Fernandez

Musikaria:
Jon Larraz

Testuak:
Antzezle taldea
eta Oier Guillan

Argazkiak:
Ainhoa Resano

Eszenografia/atrezzoak:
Dejabu panpin laborategia

Banaketa


ARTEDRAMA- Arte Eszenikoen Plataforma

Irantzu Azpeitia (+34) 615 77 95 11

info@artedrama.com
www.artedrama.com
@ArteDrama

Laguntzaileak

- + Mikelazulo kultur elkarteak
- + Azala sormen espazioa
- + Harri Xuri
- + Errenteriako Udala



“Justizia egin nahi badugu, hobi komunak zabaldu beharko ditugu. Historia berregin beharko dugu gorputzez gorputz, esatea lortzen dugun arte: “Hau hura zen, eta beste hau beste hura”. Gorpuak behar bezala ehortzi. Horrek, ordea, zergatik hil ziren gogora ekartzea dakar ezinbestean, eta norbaitek deskubritzea, agian, bere familian hiltzaile bat egon zela. Oroitzea edo ahaztea, hor gakoa. Memoria trauma kolektibo horiei aurrez begiratzean datza”.

Wajdi Mouawad.

SINOPSISIA :


Lurrek ez du sekula bere amari buruz galderarik egin. Arrastorik utzi gabe egin zuen alde etxetik bera txikia zenean. Ordutik bakarrik egin behar izan dio bizitzari aurre, etxean harrapatuta bizi den aitarekin, erantzunak bilatzeko astirik gabe. Orain amaren gorpua hilda agertu da ordea, eta galderak hasi dira berriz bor-borrear. Memoriaren zulo ezkutuenetan uste zituen sentimendu eta munstroiei egin beharko die aurre Lurrek, nahi eta nahi ez.

ERRONKA :

“Arrastoak” antzezlanak belaunaldien arteko lotura ikustezin horiei buruz gogoeta egin nahi du, generazioz generazioko herentziaz eta askatu gabeko korapiloez mintzatu.

Dejabu panpin laborategia konpainiako kideek ohi duten bezala, kolektiboki sortua izan da “Arrastoak”, euren azken lana. Talde artistiko guztiaren artean harilkatua. Horretarako antzerki fisiko eta txotxongiloen lengoaian harakatzen jarraitu du taldeak, lengoia berrietan murgiltzeko gogoz. Lan honetan, aurrekoetan baino hurrunago doa konpainia planteamendu estetikoan, errealitatea eta fantasiaren mundua oholtza gainean nahasiz.

Kontaera narratiboa duen antzezlan da, tragediatik eta komediatik neurri berean edaten duena eta pertsonaiei diseinuari eta objektuek trataera poetikoari garrantzia ematen diona.



DEJABU PANPIN LABORATEGIA

Dejabu panpin laborategia antzerki konpainia 2001. urtean sortu zuten Urko Redondok eta Ainara Gurrutxagak. Antzerki forma berriak interesatu izan ditu hasieratik eta sormen propio lanak taularatu izan dituzte beti. Urte hauetan euren lengoia estetikoa propioa garatu dute, errealismo magiko eta poetika handiko lanak eskainiz.

Hainbat sari eskuratu ditu konpainiak bere ibilbidean, "Gizona ez da txoria" (2009) lanak Bilboko sortzaile berrien ACT Nazioarteko jaialdian antzezlan onenaren saria eskuratu zuen 2008 an, Pragako World Puppet Arts jaialdian zuzendari onenaren saria (2009) eta Serbiako Subotica Thetare Festivalen antzezle onenaren saria jaso zuen Ainara Gurrutxagak. (2010)

Le Petit theatre de Pain eta Artedrama konpainiekin kolaborazioan sortutako "Errautsak" (2010) antzezlanak Donostia Antzerki Saria 2011 eskuratu zuen eta "Gure bide galduak" (2011) berriz Donostia Antzerki Saria 2012koa. Azken antzezlan honen testua Artezblai argitaletxeak kaleratu berri du. 2013An publikoaren harrera bikaina izan duen "Hamlet" (2013) tauratu dute LPTP eta Artedramarekin elkarlanean.

Mikelazulo kultur elkartearen kide dira haren sorreratik. Kultur ekintzen antolaketan parte hartzen dute urtean zehar eta ekainean Eztena antzerki jaialdia antolatzen dute duela sei urtetik.

Kontaktua:

Mandoegi 5, baxua
20100 Errenteria

Tlf: (0034) 665 71 55 58 / (0034) 675 00 66 80

info@dejabu.org

www.dejabu.org



BEHAR TEKNIKOAK

Antzezlanaren iraupena: 80 min.

Muntaia denbora: 6 ordu

Desmuntaia: 2 ordu

ESPAZIOA

- 7x7 metrotako oholza
- Alboetan telazko ohin beltzak (patak), kaleak egiteko.

ARGIAK (ikus planoak)

- Konpainiak argi mahaia eramaten du DMX konexio bidez antzokiko dimmerera konektatzeko.
- Konpainiak alboetako kaleentzako estrukturak eramaten ditu bertan antzokiko PC-ak eskegiteko.
- Kaleetan doazen 8 PC-entzako behar diren zirkuitoez gain, beste 5 zirkuito beharko ditu konpainiak alboetan lurrean.
- Bestelako foko guztiak antzokiko bara desberdinetan eskegiko dira.

SOINUA

- Soinu difusiorako estereo sistema
- 2 monitore
- Mifrofona eta mikrofono ohina
- CD irakurgailua